

Entrenatzaileentzako arautegia:

Entrenatzaileen lana ez da samurra, hartzen ditugun erabakiek jokalariei aspektu desberdinetan eragin diezaiokete. Lan horretan laguntzeko, eta ikastola bera ordezkatzeko dugunez jokaera antzekoak izan ditzagun ondorengo puntu hauek bildu ditu San Benito Ikastolako kirol batzordeak:

- Entrenatzaileen jarrera:
 - Jarrera eredugarria izan behar dute entrenatzaileek. Jokalariak, aurkariak, ikusleak, epaileak eta ingurunekeo pertsona oro errespetatzea ezinbestekoa da horretarako (epaileen erabakiak errespetatu, hitzak neurtu, kiroltasuna erakutsi...)
 - Bailaran adostuta daukagun bezala, entrenatzaileak aulkia ondoan (aulkirik ez balego talde guztia batera) egon behar dira eta ez zelaiaren beste edozein puntutan.
 - Jokalari guztiek ekintzetan jarrera egokia ager dezatela eskatu.
 - Epaileei lagundu erabakiak zuzenak edo okerrak direnean, eskola kirolean ez dago epaile profesionalik. Kontutan hartu beraiek ere posible egiten dutela eskola kirolak funtzionatzea.
 - Entrenamenduetan erabiltzen den materialaren arduradunak entrenatzaileak dira eta erabili ondoren behar den tokian dagoela ziurtatu.

- Jokalarien kudeaketa:
 - Jokalari guztiek berdin jolastu dezaten saiatu behar gara salbuespenak ez badaude (jarrera txarra, mina...). Komenigarria da jokalari guztiek probatu nahi dituzten postu desberdin guztiak probatzea kirol desberdinetan, honekin jokalariek gehiago ikastea lor dezakegu.
 - Partiduek dirauten bitartean atseden hartzen ari diren jokalariak aulkian egotea da egokiena, eta ez atzealdean jolasean.
 - Asistentzia orria betetzea derrigorrezkoa da asistentzien jarraipen bat egiteko. Kontutan hartu behar dugu talde asko daudela San Benito Ikastolan eta jokalari guztien jarraipena eramatea ezinezkoa dela koordinatzaileentzako.
 - Entrenamendura etortzen ez diren jokalariek (justifikatu gabe) arautegiak esaten duen minimoa bakarrik jolastuko dute aste horretan, eta taldekideen kopuruarengatik arau hau betetzea ezinezkoa balitz ahal duen gutxiena jolastuko dute.
 - Justifikatu gabeko faltak errepikatzen badira koordinatzaileak jakinaren gainean jarri eta kasuan kasuko neurria hartuko da.
 - Jokalariek jarrera txarra erakusten badute entrenatzailearen lana da hori

moztea hasiera batean (partiduan gutxiago jolastuz adibidez). Egoera errepikatzen bada koordinatzaileak jakinaren gainean jarri eta kasuan kasuko neurria hartuko da.

- Materiala eta instalakuntzen kudeaketa:
 - Ikastolak bere eskura dituen kirol instalakuntzak denon artean erabiltzeko dira, denon artean zaintzeko. Beraz, elkarbanatu beharrea bagaude denon betebeharra da eskuzabalak izatea.
 - Materiala erabiltzeko dago, baina denok eduki behar dugu aukera materiala erabiltzeko. Era berean, erabilitako materiala (baloiak, petoak, piboteak, porteriak edo saskiak...) lehen zegoen bezala uztea entrenatzaileen ardura da.
 - Saiatu porteria eta saskietan jokalaria ez daitezen zintzilikatu.